

3. MAILA (C1)

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak **bi zati** izango ditu

- Irakurmena
- Idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da.

2 ordu eta 30 minutu izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposatutako denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	10	20	1 h inguru
	Idazmena	15	30	1 h 30 min inguru
	Guztira	25	50	2 h 30 minutu

IRAKURMENA

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi erantzun bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan

1. testua

Arte australiarra?

Ezezaguna, ezberdina, urruna dena txundigarria iruditu ohi zaigu sarritan. Hala, mundua ikusi, ulertu eta bertan egoteko bestelako moduak eta pentsamoldeak aurkituko ditugulakoan, kultura arrotzak, primitiboak, erakargarri zaizkigu. Gure antipodetako herrialdea den Australia, lurralde erraldoia eta ezezaguna, zentzu horretan ulertzen dugu hein handi batean. Hango paisaiak, natur guneak, hiriak eta kulturak, askotarikoak eta aberatsak dira oso. Australiar arteaz hitz egitean, esaterako, aborigenen forma eta koloreak bururatzen zaizkigu lehen-lehenik, baina segituan konturatzen gara tradizioa eta modernotasuna uztartuta, ziur aski orotariko adierazpen eta arte moduak aurkitu ditzakegula bertan. Egunotan Donostian australiar arte garaikidearen etsenplu batzuk ezagutzeko abagunea dugu.

Erakusketara sartu eta berehala, bisitaria australiar geografian eta historian girotzeko lan egokia dugu: Garvin Malone artistak *In the Footsteps of Stuart* (2003-2008) proposamenean, hego-hemisferioko irla handienean zehar 16.000 km oinez zeharkatu bitartean eginiko argazki eta egunerokoak biltzen ditu, hura iparraldetik hegoaldera gurutzatu zuen lehen europarraren bidaia gogoratzeko asmoz. Irudi horietan lurralde haietako ibaien, landareen, zeruaren eta luraren kolore bero eta zoragarriak ditugu ikusgai. Segituan, paisaia horietan milaka urtetan zehar bizi izan diren aborijenen artelanak daude, baina ez duela mende askotako tresna margotuak, baizik eta egungo aborijenek eginiko koadroak. Ezaugarri bertsuak agertuta, tradizioa jarraituz haien arbasoek belaunaldi belaunaldi ezagutarazi duten margotzeko modua errepikatzen dute gaurko artista indigenek: kolore biziak, teknika puntillista, konposaketa abstraktua, esangura sinbolikoa, hau guztia material eta tresna modernoekin gauzatua. Oro har, jatorri primitibo eta exotikoko arteak sekulako eragina izan du Mendebaldeko arte modernoan -izan asiar, afrikar zein amerikar arte etnikoa, adibidez-, baina australiar artegintza tradizionala geroago ezagutua izan da. Egun leku bat lortu du arte merkatu globalean, eta XXI. mendeko australiar artista aborijenek mendebaldeko bizimodu eta ohiturak bereganatu dituzte, aborijenak ez diren artista askok horien elementu asko bere egin dituzten bezala.

Mostra honetan, adibidez, indigena ez diren artisten lan ezberdinak aurki ditzakegu, besteak beste, Mark Kinbergen argazkiak, Grego Johnsen altzairuzko eskulturak, zein James Cochran-en aerosolez tantakaturiko margo puntillistak.

Erakusketaren bukaeran eta berau osatzeko Sally Ingletonen *Painting Country* (2000) film dokumentala ikusteko aukera dago, artista aborijenen gaurko egoera agertzen duena. Bertan, duela hamarkada batzuk marjinazio sozial, politiko eta ekonomikoan zegoen komunitate indigenaren kultura nolabait mantentzeko asmoz, artegintza Mendebaldeko kulturak inposaturiko bizimodura egokitzeko modu bat izan daitekeela erakusten zaigu. Egun margotzen duten hainbat artista aborijen, duela hamarkada gutxi batzuk desertuan bizi ziren modu nomadan, biluzik, eta ehizatzen zutenaz elikatuz; orain, komunitateetan bilduta, jatorri europarreko australiarrekin elkarbizitzan margotzen dute.

Zer da, beraz, arte australiarra? Ikuspegi eurozentrista batetik eta globalizazioaren garaiotan zaila da herrialde bateko topografia artistikoa egitea topikoan jausi barik. Are gutxiago kubo batean sartzea. Egoera konplexuagotu egiten da, kolonizazio politikoa eta kulturala erabatekoa izan ondoren komunitate aborijenaren ondarea salbatu nahi duten lurraldeen kasuan. Artea bi komunitateen arteko zubi gisa erabiltzeak zentzuzkoa dirudi, eta, besteak beste, joera hori agertu nahi du mostrak; baina bisitariak atzean diren bestelako inplikazio etikoak ere aintzat

hartu beharko lituzke, edota baita, bestalde, tradizio indigenako artearen benetako balioaz galdetu, moda kontu hutsagatik nazioarteko arte merkatuan bere txokoa lortzen ari baita azkenaldian. Noski, etxeko saloia apaintzeko australiar pintura indigena koloretsua izatea *cool* da.

Kontuak kontu, mostra hau aukera polita dugu guretzat planetaren ipurdia den lurraldeko adierazpide artistiko batzuk ezagutu, horiekin gozatu, eta, bide batez, huntaz eta hartaz gogoeta egiteko -izan ere, zertarako da artea, bada?

Mikel Onandia
Berria, 2010-05-08 (laburtua)

1. testua

1. Mendebaldean, zer dela eta egiten zaigu hain erakargarri Australia?

- a) Australiak mundua beste modu batean ikusarazten eta ulertarazten digulako.
- b) Ezezaguna eta urruna denak, oro har, interesa pizten duelako.
- c) Arte adierazpen tradizionalak bizirik dirauen lurralde bakar gisa ikusten dugulako Australia.
- d) Bere paisaia ezezagunak eta lurraldearen handitasunak aberatsak iruditzen zaizkigulako.

2. Zer aurkituko dugu erakusketan?

- a) Australiarren teknikak kopiatuz, Donostiako hainbat artistak egindako arte lanak.
- b) Lehen europarrek irla handia iparraldetik hegoaldera zeharkatzean egindako argazkiak ikusiko ditugu.
- c) Artista australiarrek milaka urtetan margotutako paisaia koloretsuak daude bilduta erakusketa honetan.
- d) Egungo artista australiarrek aborijenek tekniketan oinarrituta egindako lanak.

3. Zein da Australiako artearen gakoa?

- a) Kulturen arteko transferentzia elementua izatean datza bere balioa.
- b) Australiako artea aitzindaria izan da arte exotiko modernoan.
- c) Paisaia koloretsuak margotzeko modua da berezi egiten duena.
- d) Beste lurralde batzuetako arte etnikoarekin dituen antzekotasunetan datza.

4. Zer erakusten du "Painting Country" filmak?

- a) Australiako aborijenek duela zenbait hamarkada nola bizi ziren erakusten du.
- b) Jatorri europarra duten hainbat artistaren gaurko bizimodua erakusten du.
- c) Artista aborijenek mendebaldeko kulturaren izan duten eraginaren berri ematen du.
- d) Komunitate batek era askotako bazterkeriatik ateratzeko egindako ahalegina jasotzen du.

5. Egileak zer dio jatorri primitiboko artearen egungo arrakastaz?

- a) Bere etxeko saloia apaintzeko oso gustuko du arte adierazpen hau.
- b) Zalantzan jartzen du arte indigenaren benetako balioa.
- c) Gogoeta egiten du moda hutsagatik ez ote duen lortu arrakasta.
- d) Australian kolonizazio kulturalak artea salbatu duela onartzen du.

1-	2-	3-	4-	5-
----	----	----	----	----

IRAKURMENA

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena

Idatzi erantzun bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan

2. testua

Sistemaren ordua

Ia 4.000 herrik eta 89 herrialdek hartu zuten parte joan den larunbatean Planetaren Orduan. Horiexek dira World Wide Foundation erakunde ekologistaren web gunean ageri diren datuak. Ehunka milioi pertsonak argiak itzali zituzten ordubetez, eta munduko bazter askotako eraikin ezagunak ilundu egin ziren. Karga sinbolikoz betetako irudiak utzi ditu itzalaldiak, eta gau zirrarragarritzat jotzen du gaur ekintza WWFk bere web gunean. Pozik daude emaitzarekin.

Joan den astean jaso nuen posta elektronikoan ekintzarekin bat egiteko deia, *Itzali argia eta piztu planeta* lelopean. «Ekin klima-aldaketaren aurka. Egin ezazu bat Planetaren Orduarekin», esaten zuen mezuak. Banaka eta batera egin dezakegunaren ikurtzat jotzen du WWFk ordubetez, eta guztiek aldi berean, argiak itzaltzea. Erakundearen web guneak garbi esaten du kontua ez dela energia aurreztea, kontzientziak piztea baino. Norberak klima-aldaketaren aurka har ditzakeen neurriez jabetzeko parada gisa ikusten dute, batetik. Eta, bestetik, guztiok batera izan dezakegun ahalmenaren ikur bihurtu nahi dute: agintariei neurriak hartzeko deia egingo dien garrasi globala.

Nik ez nituen argiak itzali. Ez dut zalantzan jartzen ekintza sinbolikoek izan dezaketen trakzio-indarra. Alderantziz, gizartearen ezinegona, desadostasuna, kritika edo oniritzia agertzeko funtsezko erreminta direla uste dut. Eta asko lagundu dute, gainera, kontzientzia ekologikoa garatzen. Greenpeace da adibide garbiena. Ekintza sinboliko ikusgarrien bidez, eraginkortasun handiz zabaltzen ditu bere mezuak. Ekintza horiek hutsak bihurtzen dira, ordea, deiaren hartzaile behar luketenak direnean ekintzarekin bat egiten lehenak. Nola esan ezer agintariei, haiek baldin badira argiak itzaltzeko korrika azkarren egiten dutenak?

Maltzurkeriaz, pentsa liteke gizarte mailako ekintzak indargabetzeko estrategia bat dela guztia. Gaztelaniazko esaera batek dio: «Etsaia ezin baduzu garaitu, egin bat harekin». Baina ez dut uste hala denik benetan. Iruditzen zait egiten dutenarekin sinetsita itzaltzen dituztela argiak, neurriak hartzeko deia egitea haiei ere badagokielakoan. Edo beldurra da? Politikoki zuzena izan beharra?

Nik, behintzat, inozotzat hartzen nautela sentitzen dut munduko milaka herritako udalek aho batez monumentuak ordubetez itzaltzea onartzen dutenean, klima-aldaketaren kontrako borrokarekin bat egiteko. Izan ere, oker nabil agian, baina nago agintarien eginbeharra arazoan irtenbide erreala bilatzea dela, ez herritarren ondoan jarrita neurriak hartzeko eskaera sinbolikoak egitea. Eta ekintza sinbolikoak egitekotan, hobe Guggenheimen edo Kursaallean urteko gau guztietako argiztapena murriztea. Zenbat energia aurreztuko den ez dakit, baina egunero gogoraziko digu behintzat denok gauza bera egin dezakegula etxean.

Sortu zenean, 2007an, balio sinboliko handia zuen WWFk bultzatutako ekintzak. Kyotoko Protokoloa berresteari uko egiten zion gobernua zuen orduan Australiak, eta, ekintza harekin, klima-aldaketaz kezkatuta zeudela adierazi nahi izan zuten Sydneyko biztanleek. Hiru urte geroago, ordea, galdua du indar sinboliko hori. Sistemak irentsi, eta bere egin du.

Eider Carton
Berria, 2009-04-01

2. testua

1. Zer da "Planetaren Ordua"?

- a) WWF erakunde ekologistak 89 herrialderi egindako deia da, ordubetez argiak itzal ditzaten.
- b) Eraikin publiko zein pribatuetako argiak ordubetez itzaltzea protesta gisa.
- c) Gizabanakoak gehiegizko energia kontsumoari aurre egiteko deia.
- d) Argiak itzaltzeko deia, gau zirrargarri baten sinbolo gisa.

2. Zein helbururekin egin zuen deia WWF erakundeak?

- a) Helburu nagusia taldea munduko bazter guztietan ezagutzera ematea izan zen.
- b) Klima-aldaketaren aurka hartutako neurrien balio sinbolikoa kritikatu nahi izan du.
- c) Herritarrok arazo global baten aurrean dugun indarraz jabe gaitzezen nahi zuen.
- d) Mundu zabaleko agintariak elkartu eta lanari batera ekitea lortu nahi zuen.

3. Egileak zergatik ez zituen argiak itzali?

- a) Bere ustez, horrelako ekintza sinbolikoez ez dute jendea behar beste erakartzen.
- b) Greenpeacerenak bezalako ekintzek baino ez dute lortu benetako mezua zabaltzea.
- c) Bere ustez, ekimenean parte hartu zuten agintariak ez zutelako benetako mezua ulertu.
- d) Horrelako ekintzak inozokeriaz hartzen dituelako, ez baitu inolako kontzientzia ekologikorik.

4. Zer dagokie agintariei?

- a) Klima-aldaketaren aurka Planetaren Ordua bezalako ekintzak sustatu beharko lituzkete agintariak.
- b) Benetako irtenbidea bilatze aldera, eredugarri liratekeen neurriak hartu beharko lituzkete.
- c) Erakunde ekologisten ekintzak indarririk gabe uzteko estrategiak asmatzea dagokie.
- d) Klima-aldaketaren kontrako borrokarekin bat eginez, monumentuetako argiak itzaltzea dagokie.

5. Laburbilduz, ekimenak izan zuen arrakastarik?

- a) Bere jatorrian arrakasta izan bazuen ere, luzarora indarra galdu du ekimenak.
- b) Sydneyko biztanleek lortu zuten Australiako agintariak Kyotoko Protokoloa ez sinatzea.
- c) 2007an sortu zenetik, baliagarria izan da, sistemak onartu egin duen neurrian.
- d) Hiru urteko ibilbidean klima-aldaketarekiko kezka areagotu egin dela erakutsi du.

1-	2-	3-	4-	5-
----	----	----	----	----

IRAKURMENA

Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, zenbakiekin markatuta dauden hutsuneetarako **hitz edo esaldi zati egokia** aukeratu behar duzu. Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan

3. testua

Erridikuluak

ASPALDIKO kanta zaharrak entzunez egin dugu etxera buelta autoan. Bakarren batzuk ezagun egiten zaizkie txikiei, hamaika aldiz entzunak dituztelako. Gaur, ordea,1....., eta galdera-andana jaulki dute, ulertu guran edo. Hitz-jokoen berri eskatu didate, eta benetan zaila2......

"Bihar, gaur baino gazteago izango naizenean", dio Sabinak kanta horietako baten, eta alabek hori3..... argudiatu dute, zuzen eta artez. "Buruan orlegi, bihotzean sua" aldarrikatuz irten da geroago Benito, eta atzealdetik barre egin didate, inoiz horrelakorik ikusi ote dudan galdetu dutelako eta neuk, enegarrenez, ezetz esan diet. "Erantzuna haizean dabilela" kantatu du Dylan zaharrak.. Egia4....., hortxe geratu naiz, kieto eta mutu, zer gehiago5......

Nola azaldu hitzen esangura zehatz eta objektibotik harago doan beste zentzu hori,6....., berben segida propioa osatzeko? Hitzez hitzezko zentzua garrantzitsua da, jakina, baina bada hitzek bere horretan adierazten ez duten beste zerbait, ulertzen ikasi behar dena.

Fernando Pessoa-k zioen amodio gutun guziak direla erridikuluak,7..... amodio gutunak ez balira erridikuluak. Bada, beste horrenbeste gertatzen da sarritan abesti eta bestelako gertaerekin. Jasotzaileak baino ez ditu aparteko egiten dituen zentzuaz betetzen, eta besteontzat halako lotsa, halako dena-delako zerbait baino ez dute eragiten. Emozionatzen8....., funtsean, kurtsi samarrak dira.

Denborarekin ikasiko dutela esan dit literatura irakaslea den adiskide batek. Irakurtzean, musika entzutean, lagunekin hartu-emanak sendotzean, (bestela esanda, bizitza deitu ohi dugun bide luze eta malkartsuan9.....) ohartuko omen dira hitzek ezkututzen duten altxorraz. Eta halako baten,10....., aitortu egingo diote elkarri: finean, amodio gutunik sekula idatzi ez duten kreaturak soilik dira benetan erridikuluak.

Pili Kaltzada
Deia, 2010-02-23

3. testua

1. a. letrari erreparatu diote
b. letran erreparatu dute
c. letrara erreparatu dute
d. letrara erreparatu diote
2. a. suertatu zait
b. geratu zait
c. gertatu zait
d. tokatu zait
3. a. ezinean dela
b. ezinezkoa dena
c. ezinezkoa dela
d. ezinean dena
4. a. esan nahi baduzue
b. esatea nahi baduzue
c. esateko nahi baduzue
d. esatea nahi badizuet
5. a. esan ez dakidala
b. esanik jakin gabe
c. esatea ez jakinik
d. esan ez jakinda
6. a. bakoitza bere buruan harilkatzen duena
b. nork bere buruan harilkatzen duena
c. nork bere buruan harilkatzen duenak
d. bakoitzak bere buruan harilkatzen duenak
7. a. ez zirelako
b. ez liratekeelako
c. ez zitezkeelako izango
d. ez ziratekeelako
8. a. diguten gauzek
b. gaituen gauzak
c. gaituzten gauzak
d. diguten gauzak
9. a. aurrera egin
b. aurrera egitean
c. aurrera egiten
d. aurrera egiteko
10. a. Pessoa berak bezalaxe
b. Pessoaak bera bezalaxe
c. Pessoa bera bezalaxe
d. Pessoaak berak bezalaxe

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

IRAKURMENA

Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien **baliokidea** aukeratu behar duzu.

Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan

4. testua

Kanposantu ikusgarriak

Gizako piramidetzarra **liluragarria (1)** da. Bistan duzunean izugarria iruditzen zaizu, eta hurbiltzen zoazen **heinean (2)**, zapaldu egiten zaitu, txiki bihurtzen zara. **Huskeria (3)** zara. Erromako Koliseoak gladiadoreen borroka zalapartak entzunarazten dizkizu; **gerturatu (4)** ahala, ikusleen algarak, marruak... odola borborka **antzematen (5)** duzu. Notre Dameko elizak, eliza guztiek bezala, usain berezia du; zutabeak, bobedak, kristalak... lepoko mina izan arte gora begira jartzen zaitu, jainkoren baten bila bazenbiltza bezala bertan **aurki (6)** dezazun. Eta, guztiak ikusita, Txinako harresira doa irudimena, Machu Picchura, Taj Mahalera... Noren aginduz eraiki ziren, zein urtetan hasi eta amaitu ziren, zertarako egin zituzten, zenbat harri eta nondik ekarri zituzten azaltzen dizute munduko mirari hauetako gidariek, seguru, harro.

Eta beti-beti, **nahitaez (7)**, eraikin eder hauen aurrean, zenbat langilek, **morroik (8)**, presok eta esklabok lan egin ote zuten datorkit burura, nolako sufrikarioa izan ote zuten, jateko zer ematen ote zieten, nola lo egiten ote zuten. Edertasunaren tokian hiltegiak ikusten ditut nik, **barrunbe (9)** guztiak nahastuta atzera egiten dut beti, marabilla hauen oinarrietan **hilotz (10)** lehertuez betetako kanposantuak ikusten ditudalako.

Xabier Lekuona
Berria, 2009-10-09

	A	B	C	D
1	txundigarria	suntsigarria	beldurgarria	ukigarria
2	arabera	moduan	neurrian	ahala
3	ezdeusa	koldarra	esnatua	alferrik
4	gertatu	hurreratu	konturatu	jazo
5	harrapatzen	entzuten	sumatzen	ikusten
6	senti	ikus	jasan	topa
7	ezinbestean	berriz	ostera	propio
8	mutikok	lemazainek	gaztek	mirabek
9	hutsune	barren	baita	kolko
10	zerraldo	hilobi	gorpu	hil

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

IDAZMENA

Egitekoa:

Jarraian, artikulua bat idazteko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

1. gaia

Autorik gabeko eguna

Irailaren 22a "Autorik Gabeko Egun" izendatu zuen Europar Batasunak. Urtean zehar, era horretako hainbat kontzientziazio-kanpaina antolatzen dira, baina ez dago guztiz argi gizarartean duten eragina eta zentzua.

Aurreko albistea kontuan hartuta, euskaltegiko aldizkarian argitaratzeko **artikulu** idatzi behar duzu.

Idatzi horretan, proposaturiko gaiaren aurrean duzun iritzia azaldu behar duzu eta berau arrazoit.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Irakurri duzun albisteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Estatistiken arabera, gero eta ibilgailu gehiago dugu errepideetan
- Hiri barruko joan-etorrietan bestelako garraio motak erabiltzeko eskatzen digute
- Herri txiki eta auzoetan, ordea, autoa erabiltzea ezinbestekoa da?
- Garraio publikoa erabiltzeko oztopoak: prezioak, ordutegiak, atzerapenak...
- Eraginkorrak dira horrelako egunak?
- Zein izan daiteke irtenbidea?



gwt247033 fotosearch

2. gaia

Organo-emaileak

Osasunerako Munduko Erakundearen arabera, milioi bat biztanleko 40 organo-emaile beharko lirateke gutxienez. 2008an, EAEk kopuru hori gainditu egin zuen, milioi bat biztanleko 41 emaile izan baitziren. Joan den urtean, ordea, kopuruak behera egin zuen.

Aurreko albistea kontuan hartuta, euskaltegiko aldizkarian argitaratzeko **artikulua** idatzi behar duzu.

Idatzi horretan, proposaturiko gaiaren aurrean duzun iritzia azaldu behar duzu eta berau arrazoit.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Irakurri duzun albisteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Transplante-kontuetan izaniko aurrerapenak direla-eta, emaile gehiago behar da
- Organoak emateari uko egiteko arrazoiak: utzikeria, beldurra, arrazoi etikoak, senideen ezezkoa
- Munduan egiten diren transplanteen %10 organoen merkatu beltzak elikatzen du
- Alde handia dago "Lehen munduko" eta "Hirugarren munduko" herrialdeen artean
- Ia elkarte guztiek uste dute emaile egiteko ematen den informazioa ez dela egokia
- Noren esku dago eta zein izan daiteke irtenbidea?



Gaiaren izenburua:

5

10

15

20

25 _____

30 _____

35 _____

40 _____

45 _____

50 _____

55

60

65

70

HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

Proba idatzia 50 Gainditzeko 25	Irakurmena	gutxienez 10	20 puntu	1 h inguru
	Idazmena	gutxienez 15	30 puntu	1 h 30 min inguru
Ahozko proba 50 Gainditzeko 25	Entzumena	gutxienez 10	20 puntu	25 min inguru
	Mintzamena	gutxienez 15	30 puntu	10 min inguru
GUZTIRA		gutxienez 50	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzu, 25 proba bakoitzean. Ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea.
Emitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI.**

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

EGITEKOA BETE. Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA. Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.
GRAMATIKA ETA LEXIKOAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA. Gramatika-egiturak. Lexikoa. Joskera. Ortografia.